



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/07/16) (2019/07/30) Hurrengo saioa: 2019/09/10	Euskara klaseak	Momentuz dugun taldea 6koa da eta baldintza honekin AEK prest azaldu da irailean, matrikula egin ondoren, klaseak ematen hasteko. Adostutako ordutegia 15:00etatik 17:00ak arte izango da eta egunak astelehenak edo asteazkenak eta ostiralak.	- Irailean bilera egin - Eskaintza birgogoratu, kide berriei aukera emanaz
	Mantangorri (Berria)	Udalekuei buruzko informazioa eta argazkiak bidali zaizkie astekarian argitaratzeko	Noizbehinka informazioa bidaltzen jarraitu.
	Udalekuen balorazioa	- Udalekuetan parte hartu duten haurren familiei inkesta bat prestatu eta whatsapp-ez bidali zaie.	- Inkestetako emaitzak aztertu. - Ekintza osoaren balorazioa egin (begirale, laguntzaile, enpresa, garraioa, kostua,...)
	Euskaraldia	Euskaraldiaren bigarren edizioa martxan jarri da eta Herri Batzordeen izen-ematea irekia dago ekainetik urrira bitartean. Edizio berri honen helburua, orain arte jorratutakoari jarraipena emateaz gain, entitateetan indarra jartzea izango da. Ariketa soziala 2020ko azaroaren 20tik abenduraren 4ra bitartekoa izango da. Euskaraldiaren 2. edizioko ariketa sozialean Itsaso partaide izango dela adostu da.	- Udalerrri bezala izena eman - Irailean, aurrera eramango diren urratsak antolatzen hasi
	Diru-laguntzak	- <u>'Osasuna sustatzeko bertako produktuak ekoiztu eta kontsumitu' proiektua</u> gainbegiratu da eta bidaltzeko prest dago. Datorren astean bidaliko da. - <u>Ondare naturala</u> : Ingurumenaren egoerari buruzko ikuspegia jasotzen duen programa honen aukeren artean lurzoruak erostearena hobetsi da (komunitatearentzat eta herriarentzat interesekoak diren habitat naturalak kontserbatzeko egin nahi diren leheneratze-, hobetze- edo kudeatze-ekintzak)	Ondare naturalaren inguruko proiektu hau osatu




	Alegiako festak	Aurtengo Madalena jaien egitaraua partekatu da batzordean eta herriko whatsapp taldean.	
	Publizitatea (Hitza)	Hitzakoek herriko jaietan jartzen duten publizitatearen inguruko plangintza bidali dute. Iaz bezala, Madalenatan, San Bartolometan eta Kizkitzakoetan azalduko da eta baita urtero ateratzen den zerbitzuen gidan ere. Prezioa mantentzen da: 450€+BEZa	
	M.Luisa Odriozolaren bisita	Itsasoko Udalak hirugarren munduari eskaintzen dion %0,7a Bolibiako Arani komunitatera bideratzen du eta bertan lanean ari den M.Luisa Odriozolaren bisita izan dugu. Bere egitekoa zein den azaltzeaz gain, azken urteotan egindako inbertsioen berri eman digu eta argazkietan ikusteko aukera izan dugu. Esker oneko hitzak jaso ditugu.	
	Udalekuen balorazioa	Erantzun duten familien balorazioa oso baikorra izan da.	Begirale eta laguntzaileei ere balorazioa eskatu
	2019-2020ko ekintzen eskaintza	Jaso diren erantzunak aztertu dira.	Kontratatu diren enprekin harremanetan jarri

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOAK	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/07/23)	Ikastaro, formazio eta kirol eskaintza 2019-20	Aurreikuspen moduan, datorren ikasturtera begira egingo den formazioetarako eskaintza (helduen ariketa psiko-sozial- emozionalak; gantxillo eta josketa;keramika; sukaldaritza; tertulia literarioak; desfibriladorearen erabilira; batukada; kontsumobide tailerrak) eta kirol eskaintzak (gimnasia; euskal dantza; mendi irteerak; zaldian ibiltzea; yoga; zumba; pilates; aerobic; areto dantza; frontenis) zehaztu ditugu.	Jasotako erantzunak aztertu eta egin beharreko gestioak egin
Hurrengo saioa: (2019/09/03)	Udal Batzordearen eraketa	Abuztuaren 5ean egingo den Udal Batzordearen eraketarako jakinarazpena prestatu da. Abuztuaren 1ean zabalduko da.	



	2030 Parte-hartze prozesua (Siadeco)	Banaturako 145 inkestetatik 113 jaso dira eta dagoeneko Siadecora bidali dira. Epe laburrean aurreikusten diren zereginak hauek dira: Uztailean, eratu diren batzordeetako kide kopurua ezagutzera; Irailaren 1. astean: Siadecorekin bilera egin, batzordeetako deialdiak gauzatu. 2. astean: Batzordeetako lehen bilerak burutu	Irailetik abendura bitarteko lan plangintza zehaztu
	Itsasoko Udalaren kudeaketaren berri ematea Aldundian	Aldundiak Itsasoko Udalaren kudeaketa eredutzat hartu du, beste 5 udalerriekin batera, egiten den gestioa beste udaletako hainbat ordezkariari aurkezteko. Ekitaldia Aldundian izango da, urriaren 11n.	
	Diru-laguntzak	- <u>Ondare naturala</u> : Proiektuak eskaintzen dituen aukerak anitzak izanik, eman nahi zaion enfokea ondo aztertu behar da. Itsasondon egindako proiektuari erreparatu nahi zaio, Jaurlaritzako teknikariari aholku eskatu, ikusi aurreko urteetan zein proiektuari eman zaion diru-laguntza,... Azterketa hau egin ondoren, proiektua idazteari ekingo zaio. - <u>Gizarte ekitaldiak</u> : Goimenek eskaintzen duen diru-laguntza honetan lehiaketak, jardunaldiak, eztabaidak, tailerrak, txapelketak, hitzalaldiak eta erakusketak, musika, antzerki eta dantza-ikuskizunak, bertsolaritza, errezitaldiak eta antzekoak aurkeztu daitezke. "Rita" antzezlanaren aurkeztuko dela erabaki da.	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOAK	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2019/07/24) Hurrengo saioa: 2019/09/11)	Udaletxeko obra	Udaletxeko obraren proiektu definitiboa Teknaliak erabateko azterketa egin aurretik egin daitekeela ziurtatu da baina Teknaliak egin beharreko txostena irailean egingo du. Bitartean, Miriamek gauzatu beharreko proiektua aurreratuko du eta obraren lizitazioa urrian egingo da.	
	Alegiako asfaltatze lana	Alegiako errepidearen asfaltatze lanari ekin baino lehen ur hodian konponketa egin beharra dago, eta irailean bilera egingo da Aldundia, Ur kontsultazioa eta Udalaren artean, nola egin erabakitzeko. Bilera horretan bertan erabakiko da Aldundiak asfaltatzearen zer zati hartuko duen bere gain, eta bien bitartean, Leader 2019 proiektuan Alegiako plaza asfaltatzearena ere sartuko da.	
	Alegiako bide	Falta diren hesiak jartzeko lanak udal-langileak egingo ditu, lan horietan trebatuta	Aurreikusitako zereginen



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

	berdea	dagoen profesional baten laguntzarekin. Irailean egingo dute lan hori. Presa inguruan mahaia eta aulkiak ere jarriko dira eta txatarrerria egondako lekuan ere egokitze lanak egiteko bertako terreno jabearekin bilera egingo da.	jarraipena egin.
	Alegiako garbigunea	Konpostagailuak dauden lekuan itzala egiteko zer jarri daitekeen aztertu da: zuhaitzak landatu, itzala egiten duen sarea jarri, pareta bat eraiki,...	Eguzkiaren joera ikusi eta aukera hobereana zehaztu